

**ERAKUNDEEN ARTEKO II. PROTOKOLOA
AZPEITIAN INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA
EMATEKO ETA KOORDINATZEKO**

2023

Azpeitia
Denontzat

AURKIBIDEA

ZIOEN ADIERAZPENA	4
1. LEGE-ERABAKIAK	8
2. TERMINOLOGIA	10
3. PRINTZIPIO GIDARIAK	13
4. DATUEN BABESA	16
5. AZPEITIKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETARAKO PROZEDURAK	17
5.1. SARBIDEAK: SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK	17
5.2. UDAL-ARRETAREN PROZEDURAK	17
5.3. ETENGABEKO ARRETA	18
5.4. LARRIALDIKO ARRETA	21
5.4.1. Larrialdian laguntzea, esku-hartzeko prozesuan	23
5.4.2. Larrialdietako bizitokia	23
5.4.3. Adingabeentzako arreta	23
5.4.4. Informazioa eta aholkularitza, eta bideratzea	23
5.5. ARRETA SEXU-ERASOEN KASUETAN	26
5.5.1. Gertatu berri diren sexu-erasoen aurreko arreta (120 ordu/5 egun)	26
5.5.2. Gertatu berriak ez diren sexu-erasoen aurreko arreta (5 egun baino gehiago)	26
6. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA	28
6.1. Akordioak betetzeko eta horien jarraipena egiteko koordinazio teknikoko mahaia	28
6.1.1. Koordinazio teknikoko mahaiaren eginkizunak	30
1. ERANSKINA	31
1.1 Foru eta autonomia baliabideak	31
2. ERANSKINA	33
2.1 Izaera pertsonaleko datuak erabiltzeko informazio- eta baimen-akta. Ertzaintza	33
3. ERANSKINA	34
3.2 Izaera pertsonaleko datuak lagatzeko adostasunaren akta	34

ATARIKOA

Azpeitiko udalerrriak, herriko indarkeria matxistaren kasuetan arreta eta koordinazioa hobetzeko konpromisoan, Berdintasun Zerbitzuaren bidez **indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta emateko eta koordinatzeko Azpeitiko II. Protokoloa** egiteko prozesua abiaraztea erabaki du. Prozesu hau koordinazio- eta arreta-mekanismo ofizialari berriro ekiteko premia antzeman ondoren sortu zen, kalitatezko berdintasun-politika publikoak gauzatzeko betebeharra kontuan hartuta.

Bigarren prozesu honek aukera handia ematen du **jarduketa-prozesua eguneratuta edukitzeko**, eta, horretarako, lege-esparrua eta gauzatu behar diren prozedurak onartzeko prozesuan inplikaturik dauden erakundeei dei egiten zaie. Horregatik, prozesua aurrera eramateko, hainbat elkarrizketa egin zaizkie bai gizarte-eragileei, bai udalerrian indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei laguntzeko sarea osatzen duten teknikariei.

Azken urteotan **aldaketa garrantzitsuak gertatu dira legegintza- eta gizarte-mailan**, eta horrek jardueren erreforma dakar detektatzen eta artatzen diren kasuetarako. Legegintza-esparruan, protokolo hau hiru aldaketa esanguratsuren ondoren egin da, honako lege hauetan:

- **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen VII. kapitulua.**

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptua zabaldu egiten da, beste modu eta eremu batzuk sartuz. Arreta-ereduak ere eguneratzen dira, eskumen-eremu desberdinetan eraginez.

- **Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoa.**

Adingabeen babesean aldaketak aplikatzen dira, eta horiek tokiko eta foru mailako arreta-ereduei eragiten diete.

- **Sexu-askatasunaren berme integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoa:**

Lege berri hau indarrean sartzean, sexu-indarkeriaren biktimek genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimek dituzten eskubide berberak izango dituzte. Horregatik, haien arreta koordinatu beharko da etorkizuneko protokoloen esparruan.

Hori dela eta, gaur egun, bigarren protokolo hau egitea **urrats garrantzitsua** izango da Azpeitiko udalerriarentzat berdintasun-politikak **hobetu eta eguneratzeko**, udalerrian indarkeria matxistari **modu eraginkorragoan** aurre egiteko prozedurak adostuz.

2023ko ekaina.

ZIOEN ADIERAZPENA

Protokolo hau sinatu duten erakundeen ustez:

- Indarkeria matxista **emakumeengana zuzentzen da emakume izateagatik bakarrik**, haien portaerak eta adierazpenak alde batera utzita, eta **giza eskubideen urraketa** larria dakar.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak botere-harreman sozialak errepikatzen ditu, eta harreman horien ondorioz, emakumeen eta gizonen arteko harremanetan **desberdintasun hierarkikoa** mantentzen da, eta lehenengoak mendekotasun-egoeran geratzen dira.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxistak **herritar guztiei ere eragiten die**. Biktimen ingurune hurbilenetik (lagunak, senideak, bikote berriak, etab.) auzotarretaraino eta herritartasun orokorreraino. Prebentzioko, arretako eta erreparazioko esku-hartzeek, beraz, indarkeria horren ondorioak bizi dituzten pertsona guztiak ere hartu behar dituzte barnean.
- Emakumeen aurkako indarkeria matxista **osasun publikoko arazo bat da**; izan ere, biktimei eragindako kalteak sufrimendu edo kalte fisiko, sexual, psikologiko eta sozial bihurtzen dira, baita sozioekonomiko edo ondarezkoak ere, oro har, zuzeneko biktimen osasuna hondatzen dutenak, indarkeria matxistaren eraginpean egoteagatik eta bikarioak izateagatik.
- Era berean, sexu-binarismoa eta genero-binarismoa inposatzen dituen eta LGBTBIQA+ pertsonetan eta kolektiboetan adierazitako aniztasuna baztertzen duen **sexu-generoko eta sexualitateko** sistema nagusian ezarritako arauen barruan portatzen, adierazten edo sartzen ez den pertsona orori zuzentzen zaio indarkeria matxista.
- Protokolo honek etengabeko hobekuntzarako duen bokazioa azpimarratu nahi du, hau da, ez da dokumentu itxia, baizik eta koordinaziorako eta jarraipenerako hornitutako espazioetan **hautemandako beharretara egokituz joango da**.

ETA ADOSTU DA:

- 1 Parte hartzen duten erakundeek protokolo hau sinatzea**, protokoloa aplikatzeko benetako konpromisoaren erakusgarri.
- 2 Lan-mahai iraunkorrean prozedurak jarraitu eta eguneratzea**, honako hauek parte hartuta: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Hezkuntza, Gazteria, Berdintasun Zerbitzua, Emakumeen Txokoa, Azpeitiko Udaleko Udaltzaingoa, Goierri-Urola Garaiko ESI eta Urola Kostako Ertzaintza.
- 3 Etengabeko eguneratzea prestatzea eta mantentzea** azken lege-aldaketei dagokienez, horiek zuzeneko eragina baitute bizirik dirauten biktimekiko esku-hartzean.
- 4 Esku-hartzea etengabe hobetzearen eta biktimaren kontzeptua zabaltzearen alde egitea**. Horretarako, prestakuntza espezifikoko eskaintza indarkeria matxistaren, arretaren eta esku-hartzearen arloan, LGTBQIA+ kolektiboetako pertsonen aurkako indarkeria barnean hartuta.
- 5 Protokolo honen edukiak zuzenean edo zeharka langileen artean zabaltzea**, indarkeria matxista detektatzeko, prebenitzeko eta artatzeko.
- 6** Udalerrian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen eta adingabeen kopuruari eta beste indarkeria matxista mota batzuei buruzko **datuen erregistro bat izatea**. Datu horien azterketaren helburua izango da ahalik eta ondoen jakitea zer biztanleri eragiten dion, zer premia dituen eta zer zailtasun dituen laguntza eskatzeko prozesuan.
- 7 Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzea, aurre egitea, konpontzea eta desagerraraztea helburu duten politikek berdintasun-politiken barruan egon behar dute**, eta EAEko administrazio publikoetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumena duten organoek lidergo-lana eta koordinazio orokorra izan behar dute, bakoitzak bere eskumen-esparruan¹.

¹Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen VII. kapituluko xedapen orokorrak eta EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzak.

- 8** Gizarte-zerbitzuen eremuan eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren eremuan eskumena duten organoen arteko koordinazio-espazioak sustatuko dira, arreta-ereduak batera definitzea, esku-hartzean genero-ikuspegia txertatzea eta arreta hobetzen lagunduko duten lankidetzak-mekanismo egonkorak sortzea errazteko².

²EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako 4/2005 Legearen 56. artikulua.

1. LEGE-ERABAKIAK

Bigarren protokolo hau erreferentziako esparrua legegintza-esparruan zabaldu eta aldatu ondoren egin da, eta hobetu egin da, aurrez aintzat hartu gabeko indarkeria matxistaren hainbat modu sartzeko, EAEko botere publikoen jardura barnean hartuta.

Testuinguru horretan, eta **emakumeen aurkako indarkeriaren** eremuan, honako arau hauetan garatzen den lege-esparru bat dugu:

- a) 10/2022 Lege Organikoa, irailaren 6koa, sexu-askatasunaren berme integralari buruzkoa.
- b) 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Legea eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzak bigarrenez aldatzekoa.
- c) Ebazpena, 2021eko abenduaren 2koa, Berdintasunerako eta Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Idazkaritzarena, Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren 2021eko azaroaren 11ko Erabakia argitaratzen duena, genero-indarkeriako egoerak egiaztatzeari buruzkoa.
- d) 9/2018 Errege Lege Dekretua, abuztuaren 3koa, Genero-indarkeriaren aurkako estatu-ituna garatzeko presako neurriena.
- e) Emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (Istanbulgo Protokoloa), 2011ko maiatzaren 11koa, Espainiako Estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsia, 2014ko abuztuaren 1etik aurrera indarrean dagoena.
- f) 2/2015 FORU ARAUA, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (Gipuzkoa)
- g) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- h) 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzkoa.

Era berean, **atzerriko emakumeen aurkako indarkeriaren** arloan, legeria hau dago:

- a) 4/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 11koa, atzerritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa.
- b) 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua, apirilaren 20ko 557/2011 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- c) 240/2007 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarrak eta Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko Akordioan zehaztutako beste estatu batzuetako herritarrak Espainian sartu, aske ibili eta bizitzeari buruzkoa.

Adingabeen babesaren eremuan:

- a) 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Erabat Babestekoa.
- b) 8/2015 Legea, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena. Azken xedapenetako hirugarrenean, Genero-indarkeriaren aurka babes integrala emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa aldatzen da.

LGTBIQA+ kolektiboko pertsonen eskubideen esparruan:

- a) 9/2019 Legea, ekainaren 27koa, Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea aldatzen duena.
- b) 234/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, transexualen dokumentazio administratiboari buruzkoa.
- c) Europar Batasuneko Oinarizko Eskubideen Gutuna (2000). 21. artikulua, diskriminaziorik eza arautzen duena.
- d) 14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.

Azkenik, eta lege-esparru horrekin bat etorritz, Genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria zuzenari aurre egiten dioten **emakumeen eskubideak** ezartzen dira.

Ondorengo zerrendan aipatzen dira salaketa publikoen tratamenduari buruzkoak:

- ✓ Informaziorako eskubidea.
- ✓ Erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eskubidea eta haren segurtasun eta ongizate emozionala bermatzen duten bitarteko guztiak erabiltzekoa.
- ✓ Itzultzeko, kaltea konpontzeko eta eragindako kaltearen ordaina jasotzeko eskubidea.
- ✓ Duintasuna eta intimitatea babesteko eskubidea.

2. TERMINOLOGIA

Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kontzeptua **emakumeen eta gizonen arteko hierarkia** sozialaren arabera egiten diren indarkeriazko boterearen kontrol- eta egikaritze-adierazpenei dagokie, adierazpen guztietan, hau da, maskulinitasunaren nagusitasunean oinarritutako indarkeriazko jokabide guztiei, "maskulinitasunaren" nagusitasunean oinarritutakoak, "femeninitasunaren" gainetik.

1/2022 Legeak, martxoaren 3koak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarrenaz aldatzen duenak, indarkeriaren formak eta esparruak zabaltzen ditu, eskumen-eremu desberdinetatik:

Honako hauek dira emakumeen aurkako **indarkeria matxista**: bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria, familia barrukoa, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, nahitaezko ezkontzak eta beste praktika tradizional kaltegarri batzuk, oldartzea edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetan, obstetrika, sexu-eta ugalketa-eskubideen urraketa, bai eta emakumeen eta neskatoen duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duen edo kaltetu dezakeen beste edozein indarkeria-mota ere, nazioarteko itunetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudian aurreikusita badago. Hori guztia, edozein eremu publiko edo pribatutan gertatzen direla ere. Horren barruan sartzen dira, baina ez dira mugatzen, besteak beste, familia-, lan-, hezkuntza-, osasun-, kirol- eta komunitate-eremuak, komunikabideak, aisialdi- eta jai-espazioak eta ingurune birtuala.

Era berean, **biktimen kontzeptua** zabaltzea ekarri du:

Era berean, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat hartzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egindako indarkeria, bai eta ingurune hurbilaren edo afektiboaren aurka egindakoa ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurka egindakoa, emakumea atsekabetzeko borondatearekin.

Funtsezkoa da adieraztea, 2/2015 Foru Arauan indarkeria matxistak indarkeria sexista eta LGBTIQ+ kolektiboari zuzendutako **beste indarkeria matxista mota** batzuk barne hartzen baditu ere —lesbofobia, homofobia eta transfobia kasu— gaur egun udal, foru eta autonomia erkidegoetako zerbitzu publikoek **ez dutela horrelako indarkeriei erantzuteko baliabiderik**. Ondorioz, prozeduretan ez dira kontuan hartuko. Hala ere, Azpeitiko udalerriak, baliabide horien sorrera bultzatu eta sustatzeko helburu sendoarekin, datozen bi urteetan **LGBTIQ+ biztanleriaren egoerari buruzko azterketa diagnostiko** bati ekingo dio.

Testuinguru horretan, protokolo honek indarkeria horiei heltzeko moduak planteatuko ditu, eta, horretarako, honako erreferentzia-esparru hau izango da, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eremuak eta horien forma anitzak bereizten dituenak:



INDARKERIA MATXISTA MOTAK

INDARKERIA INSTITUZIONALA

Erakundeek emakumeenganako erabiltzen duten indarkeria, emakumeei buruzko irizpide diskriminatzaile edo estereotipatuen bidez, birbiktimizazioa, indarkeria kontakizunen sinesgarritasuna zalantzan jartzea, baliabideen eskasia edo horien murrizketak, prestakuntza eza, gehiegizko burokrazia, edo gizarte baliabideak eskuratzeko oztopoak jartzea, besteak beste.

INDARKERIA EKONOMIKOA

Diruarekin, ondasun komunekin, lanarekin, pentsioekin eta abarrekin zerikusia duten bere bizitzako alderdiei buruz emakumearen ekintzak, jokabideak edo erabakiak kontrolatzera bideratutako ekintzak edo ez egiteak.

INDARKERIA PSIKOLOGIKOA

Emakumearen ekintzak, portaerak, jokabideak, sinesmenak eta erabakiak deuseztatzea, degradatzea edo kontrolatzea helburu duten ekintzak edo ez egiteak.

INDARKERIA FISIKOA

Integritate fisikorako arriskua edo kaltea dakarten eraso intentzionalak edo errepikakorrak.

INDARKERIA SOZIALA

Tratu txarrak jasaten dituen emakumea isolatzea: gizarte harremanak kentzen zaizkio, familiarengandik edo lagunengandik urrutzen da edo haien aurrean umiliatzen da.

INDARKERIA BIKARIOA

Beste pertsona baten aurka egiten da indarkeria, batez ere seme-alaben aurka, baina bikote berriak, anai-arrebak eta abar izan daitezke, baita animaliak ere. Helburua emakumeari kalte handiagoa egitea da.

INDARKERIA SEXUALA

Emakume baten aurka egindako edozein sexu-jokabide.

3. PRINTZPIO GIDARIAK



• INDARKERIARIK GABE BIZITZEA

Esku-hartzearen helburua indarkeriarik gabeko harreman afektibo eta sozialak bizitzea izango da beti. Salaketa tresna garrantzitsua da horretarako, eta prozesu baten parte gisa hartu beharko da, biktimaren segurtasunean duen eragina baloratuz. Bikotea banantzea emakume bakoitzari dagokion erabakia da, ez esku-hartzearen helburua.

• LEHENTASUNA

Gertatzen den edozein eremutako edozein indarkeria matxistaren aurrean arreta berehala eta modu integralean emango da, lehenik eta behin jotzen den baliabidearen bidez, eta beste baliabide batzuekin koordinatutako jarduna eskainiko da.

• ERAGINKORTASUNA ETA AZKARTASUNA

Bermatu egin beharko da, berehala jarduteko.

- **BERDINTASUNA**

Arreta bermatu beharko da bazterkeriarik gabe: egoera zibila, sexu-joera, adina, sinesmena edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko edo maila ekonomiko bateko kide izatea, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoziala edo beste edozein egoera pertsonal edo sozial dela-eta diskriminatu gabe. Beharrezko neurriak hartuko dira biktimen eskubideak benetan baliatzen direla bermatzeko, baldin eta haien inguruabar pertsonal eta sozialek laguntza eskuratzeko zailtasun handiagoa badaukate, eta, bereziki, desgaitasuna duten emakumeek eta emakume migratuek, haien administrazio-egoera edozein dela ere, eta udalaz gaindiko baliabideetara bideratuko dira, beharrezkoa izanez gero.

Zehazki, desgaitasuna duten emakumeek informazioa eta dauden baliabideak eskuratzeko duten eskubidea bermatzeko, beharrezko egokitzapenak egingo dira: garraiorako laguntzak, laguntzaileak, zeinu-hizkuntzako interpreteak, braillezko dokumentuak, komunikazio handigarria, etab.

Era berean, komunikazio-hizkuntza euskara edo gaztelania ez bada, hizkuntza-oztopoak leuntzeko edo arintzeko neurriak hartuko dira. Kasu horietan, gogorarazi behar da garrantzitsua dela erroldatzea eskatzea gizarte-babeseko sarearen oinarritzko prestazioak eskuratzeko.

- **LAGUNTZA INTEGRALA ETA PERTSONALIZATUA**

Kasu bakoitzaren berezitasunei erreparatuko zaie, faktore intersektionalak kontuan hartuta, hala nola, bizitako indarkeria-mota, indarkeriaren iraupena, adina, jatorria, ingurunearen laguntza eta beste faktore batzuk. Era berean, eta kontuan hartuta ez dela beharrezkoa salaketa jartzea eskubidea duten zerbitzu eta baliabide guztiak eskuratzeko, aukera bakoitza emakume bakoitzaren premia eta ezaugarri espezifikoaren arabera landuko da.

- **SEGURTASUNA ETA BABESA**

Esku-hartzeetan biktimaren osotasun pertsonala gailendu beharko da: biktimaren babes fisikoa eta haren fitxategi edo datu pertsonalen babesa, bizitzen ari diren edo bizi izan dituzten indarkeriazko ekintzen zigorgabetasuna sustatu gabe. Biktima eta erasotzailea salaketaren, arretaren eta jarraipenaren izapideetan bat etor ez daitezten, babes-neurriek emakumeentzako segurtasun-espazioak izan beharko dituzte beren instalazio fisikoetan.

Esku-hartzeak irauten duen bitartean, konfidentzialtasuna bermatu beharko da, eta bildutako datuak nola erabiliko diren eta zer eskubide dituen jakinaraziko zaio.

- **ERANTZUKIZUNA**

Parte-hartzailea behartuta dago zuzendaritzari edo gainbegiratzeko ardura duenari bere laneko gabezien berri emateko, eta gabezia horiek konpontzeko baliabideak eskatuko dizkio.

- **BIRBIKTIMIZAZIOA SAIHESTEA**

Esku-hartzearen helburu nagusia erakunde-indarkeria saihestea izango da. Horrek koordinazio ona eskatzen du, gertatutakoa berriro ere gertatzea saihestuz eta prozesua modu argi eta egokian azalduko duen arreta emanez eta epaitu gabe entzunez, beti ere, erdigunean biktimia bera eta bere erabakiak jarritz.

- **AHALDUNTZERA BIDERATUTAKO ERREPARAZIOAREN PRINTZPIOA**

Honako hau suposatzen du: bizirik irten diren biktimak hartzen dituzten zerbitzu publikoek maila guztietan pairatutako kalteari erantzungo dioten ekintzak abian jartzea eta indarkeriaren ondorioei arreta emango zaiela bermatzeko lan egitea, baita beren eskubideak urratzea ahalbidetu duten baldintzak ez errepikatzea bermatuko duten neurriak hartzea ere.³

- **ADINGABEEN INTERESEN DEFENTSA**

Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren printzipioekin bat etorriz, biktimia direla ulertuko da.

Halaber, emakume biktimen seme-alabek biktimak bizi izandako indarkeriari buruz deklaratzeko duen prozeduretan **pertsonatuta egotea** bermatuko da, eta salaketa jarri edo errekurtsoak izapidetzen diren bitartean laguntzen badiote biktimari, seme-alabentzat arreta egokia jaso dezaketen **espazio pribatuak** atonduko dira.

³Erreparazio-neurriak txertatzeari buruz gehiago jakiteko, kontsultatu Eudelen Gida: Indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko tokiko jarduerak https://www.eudel.eus/es/file/libro_ficheros/guia_1

4. DATUEN BABESA

Tartean dauden erakundeek Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (DBLO) araututakoa betez jardun beharko dute. Lege honek administrazioen zenbait betebeharrak jasotzen ditu, eta horiek kontuan hartu behar dira datuak lagatzeko baimena emateko orduan:

Askea, espezifikoa, informatua eta zalantzarik gabea

- Zehaztea: erakunde zehatzak eta helburua
- Isiltasuna ez da inoiz onarpen gisa onartzen.


Ahozkoa edo idatzizkoa izan daiteke

- Zerbitzu bakoitzaren balorazioaren arabera.



5. AZPEITIKO INDARKERIA MATXISTAREN KASUETARAKO PROZEDURAK


5.1. SARBIDEAK ETA DETEKZIO-ZERBITZUAK



Azpeitian, indarkeria matxistaren biktimak zerbitzu publikoetan sartzeko guneak udal-, foru- eta autonomia-zerbitzuei dagozkie. **Arreta-guneek** gain, zerbitzu horiek berebiziko garrantzia dute indarkeria **detektatzeko** gune gisa. Horregatik, hasierako detekzioak **zuzeneko eragina** izango du biktimekin egingo den geroko esku-hartzean.


5.2. UDAL-ARRETAREN PROZEDURAK

Indarkeria matxistako arreta honako kasu hauetara zuzentzen da:



Jarraian, indarkeria matxistaren biktimei laguntzeko baliabideen eskema bat agertzen da:

5.3. ETENGABEKO ARRETA





KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

Etengabeko arretan larrialdiko egoerak sor daitezke


Erasotzailearekiko harremanetan joan-etorriak egon daitezke, esku-hartzean kalterik eragin gabe.

OGZk genero-indarkeriaren biktimaren akreditazioak izapidetzen ditu, Eusko Jaurlaritzak ematen dituenak.

Adingabe biktimeei eskura dauden baliabide espezifiko guztiak eskaini.

OGZn ez badago eta adingabeak badaude, OGZri jakinarazi behar zaio, adingabearen interes gorenaren arabera.

OGZn badago eta babes-neurriak badaude, emakumearekin adostu behar da nola abisatu ikastetxea.



5.4. LARRIALDIKO ARRETA

Egoera hauek dira:



Berehala hartu
behar da erabaki
bat



Ekintzak ahalik eta
azkarren egin behar
dira



Emakumeak
bere osotasun
pertsonalaren
arriskua azaltzen
du, edo arreta
ematen dion
pertsonak arrisku
hori detektatzen
du

Gainera, emakumeak identifikatzen ez badu ere, **urgentziatzat jotzen da** egoera hauetakoren bat:

- Emakumeak ageriko lesioak ditu edo badituela susmatzen da.
- Emakumeak salaketa jarri du edo jarri nahi du erasotzailearen aurka.
- Emakumeak jakinarazi du etxetik atera nahi duela, eta beldur da erasotzailea ez ote den haserretuko, ez ote dion jazartzerik egingo, eta abar.
- Emakumeak harremana amaitu nahi du, eta hori arriskutsua da berarentzat.
- Teknikariek emakumearentzako berehalako arriskuak daudela antzematen dutenean.
- Emakumeak aniztasun funtzionalen bat du, eta horrek ahultasun-egoera handiagoan jartzen du.
- Emakumea haurdun dago eta bizi-arriskua dago berarentzat eta haurrarentzat.
- Emakumeak lan bat aldatu edo hasi du, gaitasun ekonomikoa hobetuz, eta horrek ohartarazi egiten du erasotzailea, horrek indarkeriatik ateratzeko aukerak areagotzen baititu.
- Emakumeak bere familia berriz elkartu nahi du, erasotzailea barne.
- Emakumeak familiaren zati bat (ama, seme-alabak) elkartu nahi du, baina ez erasotzailea.
- Emakumearen familiak erasotzailea berarekin biltzea nahi du/eskatzen du, edo erasotzaileak berak hala eskatzen du.
- Familia berriz elkartu da, eta erasotzailea emakumearekin bizi da berriro.
- Emakumeak dirua bidali behar dio familiari, edo egiteko eskatzen zaio.
- Emakumeak harreman berri bat du, eta erasotzailea jeloskor dago.
- Emakumeak bere bizitza sozialari ekiten dio berriro, eta erasotzailea haserretu egiten da, emakumearen gaineko kontrola galtzen duelako.
- Emakumeak laguntza eskatzen die bere inguruneko pertsonari.
- Emakumeak beste herrialde batera joan nahi du ikasten jarraitzera edo lan egitera.

- Emakumeak bizitza berri bat hasi nahi du lagunekin batera.
- Emakumeak, sare sozialen bidez, bere bizitza sozialari heltzen dio berriro, eta bere bizitzari, bidaiei eta abarri buruzko xehetasunak eta argazkiak partekatzen hasten da.
- Emakumeak erasotzailearekin bizi izandako indarkeria salatu nahi du gizartean (herrian).

Egoera horietako edozeinek atea irekitzen ditu emakumea indarkeria matxistatik atera eta bere bizitzari indarkeriarik gabe ekin ahal izateko. Erasotzaileak kontrola eta boterea galduz gero, jazarpen-mekanismoa aktiba daiteke erasotzailearengan, emakumea berriro indarkeriazko bizitzara eramanez.

Horren aurrean, litekeena da emakumeak premiazko neurriak baztertzea, hala nola salaketa jartzea edo larrialdiko harrera-etxebizitza batean sartzea. Kasu horietan, **teknikariek konpromiso hauek hartzen dituzte:**

- ✓ **Plan bat ezartzea**, emakumeari eta, egonez gero, seme-alabei segurtasuna emateko.
- ✓ Kasuaren **jarraipena** egitea.
- ✓ Beste zerbitzuekin **koordinazio ona** ziurtatzea.



KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

- ✓ Emakumearen balizko krisia lantzea, laguntza emanez eta segurtasun-neurriei buruzko informazioa emanez, berari eta bere ardurapean dagoenari egokituta.
- ✓ Baliabideekin harremanetan jarraitzearen eta OGZra jotzearen garrantzia azpimarratuko da.

5.4.1. Larrialdian laguntzea, esku-hartzeko prozesuan

Laguntza handiagoa behar izanez gero, OGZek eta larrialdiko zerbitzuek horren beharra baloratuko dute. Hala bada, Udaltzaingoari laguntzeko eskatu ahal izango da, eta, ahal den guztietan, lehentasuna izango du bertaratzen den udaltzain-bikoteak polizia-ezaugarririk gabe jantzita joatea.

5.4.2. Larrialdietako bizitokia




Arriskua, egoera emozionala eta fisikoa, adingabeen edo mendekoen presentzia, maskotak eta abar baloratuko dira.

5.4.3. Adingabeentzako arreta

Arreta-prozesuak denbora luzea behar duen larrialdietan, lehentasuna emango zaio seme-alabek emakumeak nahi duen hurbileko pertsonaren batekin geratzeko aukerari. Hori ezinezkoa bada, seme-alabak aldi baterako geratuko dira foru-zerbitzuen babespean, eta FUSera lekualdatuko dira.

5.4.4. Informazioa eta aholkularitza, eta bideratzea




Kontuan hartu beharrekoak:

EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakundeen arteko III. Akordioa 6.4.2. puntua. Indarkeriarik gabeko bizitzarako ibilbidea koordinatzeko jarraibideak honela dio hitzez hitz:

Koordinazio- eta lankidetzajarraibideak prozesu judizialari dagokionez (penala eta zibila). Biktimari arreta ematen dioten gizarte-zerbitzuetako langileek Ertzaintzarekin lankidetzan jardungo dute, eta informazioa partekatuko dute zigor-arloko legez kontrakoa ikertzeari eta argitzeari dagokionez. Esplizituki onartu ez duen informazioa partekatu behar izanez gero, komeni da helaraziko denaren eta izan ditzakeen ondorioen berri ematea, konfiantzazko loturak mantentzeko.

EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakundeen arteko III. Akordioak, 2023/01/19an sinatuak, hau dio:

"Intzidentziaren lehen jakinarazpena jasotzen duen polizia-kidegoak agertutako pertsona artatuko du, EBAn (etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren delituengatik espedienteen kudeaketa partekatuko sistema) jasota dagoena kontuan hartuta, arriskuaren azken balorazioa erreferentziazat hartzeko"



5.5. ARRETA SEXU-ERASOEN KASUETAN ⁴

Bi egoera bereiziko dira, eta kontuan hartuko da sexu-erasoa **duela gutxi** gertatu den (120 ordu/5 egun) edo **5 egun baino gehiago** igaro diren.⁵:

5.5.1. Gertatu berri diren sexu-erasoen aurreko arreta (120 ordu/5 egun)

- ✓ **Krisialdiak, shock egoera eta/edo emakumearen beldurrak artatzea:**
Zehaztu behar zaio arretak ez duela esan nahi **salaketa jarri behar duenik**.
- ✓ **EZ EGITEKO gomendatu:**
Dutxatu; hortzak garbitu; arropaz aldatu; jan; edan.
Lagin-bilketa egingo da Ospitalean.
- ✓ **Ez da salaketa egitera behartu behar emakumeak ez badu nahi:**
Doako laguntza juridikoa jasotzeko aukeraren berri eman.
- ✓ **Biktima adingabea baldin bada:**
Familiari, legezko tutoreei edo GFAko Adingabeen Zerbitzuari abisatuko zaio, eta bulegoko ordutegian SFUSi, **laguntza emateko eta zerbitzuen berri emateko**.


5.5.2. Gertatu berriak ez diren sexu-erasoen aurreko arreta (5 egun baino gehiago)

- Ez da lagin-bilketaren prozedurarik erabiliko, baina berdin jokatu da emakumeak osasun-zerbitzuekin eta zerbitzu psikologiko espezializatuekin koordinatuta lan egin nahi badu.
- Kasu guztietan, lehen zerbitzua ematen zaionetik **Ospitalera laguntzen** zaio, unean bertan artatzea ezinbestekoa ez den kasuetan izan ezik. Ondoren, **jarraipena** egingo da artatu duten lehen zerbitzu horretatik.

Kasu horietan arreta ematen duten zerbitzuak honako hauek dira: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Azpeitiko Osasun Zentroa eta Zumarragako Ospitalea.

⁴2024ko urtarilaren 1etik aurrera, Gipuzkoako 24 orduko Krisi Zentroa irekitzen denetik aurrera, prozedura horiek berrikusi eta egokitu egin beharko dira.

⁵Euskadiko genero-indarkeria eta sexu-erasoen aurrean jarduteko gida (2019)



6. ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko **koordinazioa hobetzeko** eta protokolo honen etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko, parte hartzen duten eragile guztien arteko Koordinazio Mahaiaren funtzionamendua jarraitu, indartu eta ziurtatuko da.

6.1. Akordioak betetzeko eta horien jarraipena egiteko koordinazio teknikoko mahaia

Deialdia egin eta dinamizatu egiten du: ✓ Parekidetasun teknikariak	Mahaiko kide dira: 1. Azpeitiko Parekidetasun teknikaria. 2. Emakumeen Txokoko teknikaria. 3. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ordezkaria. 4. Udaltzain burua eta babes zerbitzuko arduraduna. 5. Urola Kostako ertzain-etxeko Ertzaintzaren genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen kasuei arreta emateko agente arduraduna. 6. Goierri-Urola Garaiko ESIko ordezkaria. 7. Hezkuntza-gazteria taldea. 8. Zerbitzu espezializatuak profesionalek (aholkularitza juridikoa eta/edo psikologikoa, Kirol teknikaria, Gizarte Larrialdietako Zerbitzuko langileak) parte hartu ahal izango dute, Mahai Teknikoak eskatuta. Ikastetxeetako ordezkariak ere parte hartu ahal izango dute mahai honetan, beharrezkotzat jotzen denean.
---	---

EGINKIZUNAK	
✓ Mahaiaren bileretarako deia egitea, akta egitea eta bileren ondoren zabaltzea. ✓ Protokoloaren jarraipena eta funtzionamendu egokia bermatzea. ✓ Urteko datuen txostena biltzea eta egitea.	✓ Protokoloaren garapena. ✓ Dokumentua zabaltzea, bakoitzari dagokion lan-eremuan. ✓ Arreta eta koordinazioa gainerako mahaikideekin batera ebaluatzea. ✓ Datuak biltzea beren jarduera-eremuetan.

6.1.1. Koordinazio teknikoko mahaiaren eginkizunak

Erantzun koordinatua ematea	Datuen txosten bat egitea	Protokoloaren garapena bermatzea	Prozedurak berrikustea eta prestakuntza jasotzea	LGTBI kolektiboarekiko jarduketak hobetzea	Ezustekoak ebaztea
Aztertzea, jarraipena egitea eta erantzun koordinatua ematea, zailtasunen bat duten kasuak kontuan hartuta, eta arreta jarrita zer zerbitzutatik igarotzen diren.	Tartean dauden zerbitzuek biltzen dituzten datuak aztertzea. Sistematizatzea eta mahaiaren berrikusitako urteko txostena egitea, hobekuntzak baloratzeko.	Eguneroko praktikaren eta Koordinazio Mahaiaren bidez	Indarkeria matxista kasuetan jarduteko modua berrikustea eta prestakuntzak egitea.	Kolektibo honen aurkako erasoei aurre egiteko jarduerak hobetzea.	Berehalako erantzuna behar duten alderdi funtzionalak ebaztea.

Koordinazio-mahaiaren maiztasuna eta deialdia

- **SEI HILEAN** behin bilduko da, erregularitasunez, protokoloa abian jartzen denetik.
- Behar izanez gero, ezohiko bilera ere egingo da.
- Parekidetasun-teknikariak bilera arruntetarako deia egingo du idatziz, 7 egun lehenago.
- Edozein parte-hartzailek deitu ahal izango du presazko bilera berezi batera.

1. ERANSKINA

1.1 FORU ETA AUTONOMIA BALIABIDEAK

24 orduko telefono bidezko arreta-zerbitzua (SATEVI)

Zerbitzua autonomia-erkidegokoa da, doakoa, eta eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, urteko 365 egunetan. Gainera, hainbat hizkuntzatarara aldi berean itzultzeko zerbitzua eskaintzen du, eta entzumen-urritasuna duten pertsonak erabil dezakete.

- Indarkeriaren biktima den emakumeari laguntzeko moduari buruzko informazioa nahi duten senideentzat, lagunentzat eta beste pertsona batzuentzat ere erabilgarri dago.
- Baliabideak, era berean, hainbat eremutako profesionalen informazio-beharrei erantzuten die.
- Zenbaki horretara bideratzen dira 016 telefonoaren deiak, Estatuaren eskumenekoak. Garrantzitsua da emakumeei ohartaraztea, 016 zenbakiak telefono-fakturan arrastorik uzten ez badu ere, deien erregistroan uzten badu mugikorrean zein telefono finkoan, deia ezabatu egin behar dela behin eginda.
- Kontaktua: 900840111.

Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta (SOSDeiak)

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak zerbitzu bat du Gipuzkoan etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria bizi dituzten emakumeen premiazko segurtasun-eskaerei erantzuteko. Egoera baloratu ondoren, horrela izan nahi badu, harrerarako baliabidea izango du emakume horrek, bizilekuaren arabera. Ordutegiari dagogionez, eguneko 24 orduz egongo dira erabilgarri urte osoan.

- Kontaktua: 94 322 44 11/112

Biktimari Laguntzeko Gipuzkoako doako zerbitzua (SAV)

Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende dago. Aurrez aurreko zerbitzua da, aurretiko hitzorduekin.

- Kontaktua: 90 010 09 28.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politikako Departamentua, Gizarte Larrialdietako eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Atala

Arreta soziojuridikoko eta psikologikoko foru-baliabideak koordinatzen ditu, banakakoak zein taldekoak, egonaldi labur eta ertaineko harrerakoak, bai eta autonomia-etxebizitzak eta gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzeak ere.

“Urrats” Larrialdietako Harrera Zentroak berehalako harrera egiten die Gipuzkoan genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktima diren eta etxetik alde egin behar duten emakume guztiei, bai eta kaltetutako emakumearen mendeko familia-unitateko pertsoneri ere. Baliabide hau Gipuzkoako Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuaren bidez (943 224 411) edo oinarritzko Gizarte Zerbitzuen bidez eskuratzen da.

- Kontaktua: 94 311 31 76/94 311 25 72.

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegia - Donostia

Gipuzkoan gertatzen diren genero-indarkeriaren kasuetarako legezko prozedurak izapidetzen dituzte.

- Kontaktua: 943 004383.

Auzitegiko klinika (Donostia)

- Kontaktua: 943 004350.

Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1. Epaitegia

- Kontaktua: 943 02 51 91.

Berdindu - LGTBI

Lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualei eta haien ingurukoei informazioa eta arreta emateko Eusko Jaurlaritzaren zerbitzua da. Aurrez aurreko arreta eskaintzen du, telefonoz, posta elektronikoz edo, nahi baduzu, bideo-deiaren bidez.

- Kontaktua: 94 321 65 51.

ERAKUNDEEN ARTEKO II. PROTOKOLOA AZPEITIAN INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA
DIREN EMAKUMEEI ARRETA EMATEKO ETA KOORDINATZEKO

SINATZAILEAK

AZPEITIKO UDALA:

Sinadura:



OSAKIDETZA (Goleiri Urola Garaiko ESI):

Sinadura:



ERTZAINZA:

Sinadura:

